



SAutobusa goitik zihon autobidetik behetik zihonera erori zen zubi batetik behera.

FLORIAN LAUNETTE / AP

## Gutxienez 12 hil izan dira A 7 eta A 8 kurutzuneko istripuan

*Marokoar langileak zeramatzan autobus bat zubitik erori zen*

**G**utxienez 12 hildako eta hogeita zazpi zauritu, haietatik sei nahiko larriki kolpatuak: hau zen atzo arratsalde erditsuan Bouches-du-Rhone departamenduan goizaldean gertatutako autobus istripu baten behin-behineko balantzea. Ibilgailuak marokoar langileak zeramatzan Italiarat, eta A 7 autobidearen gaineko zubi batetik behera erori zen.

Allande Sokarros / Baiona

ISTRIPUA goizeko 10:40ak inguruan gertatu zen, eta lehendabiziko lekukoek emandako argibideekin ezbeharra oso larria zela ohartuta, agintariak plan gorria indarrean jartzea erabaki zuten hamar bat minutu berantago. Hortaz, 200 bat erreskate egile bertaratu ziren berehala 80 bat ibilgailurekin. Denbora gutxira tokian izan ziren 25 anbulantzia eta hiru helikoptero, eta lekuan bertan eratu zen lehen artatzeak egiteko egitura bat. Guztira, hogeita hamar bat medikuk ziharduten soroste lanetan. Haatik, erreskate egileen premia oso lana autobuseko burdinen artean harrapatuak ziren bidaiariak hiltzea izan zen.

Izan ere, Casablancatik (Maroko) abiatua zen eta 41 langile Italiarat zeramatzan autobusa A 7 edo *La Provençale* autobidiera erori egin zen, 15 metro alde gainera pasatzen den A 8 autobideko zubi batetik. Bi autobideak kurutzatzen diren toki hori Coudoux herriko lurretan kokatuta dago, Salon-de-Provence eta Aix-en-Provence artean. Atzo arratsalde erditsuan, istripuaren gertaera erabatu argituta ez bazen ere, lehendabiziko testigantzek aipatzen zuten autobusaren gurrpil bat lehertu egin zela eta ibilgailuak A 7 autobidearen gaineko zubiaren segurtate hesiak apurtu zituela, 15 metroko erorketa bat egin baino lehen. Informazio batzuen arabera, zubi hori baino zenbait metro lehenago konponketa lanak egiten ari ziren A 8 autobidean, eta, beharbada,

### Hilak autobusean

- ✗ **1982ko uztailak 31:** A 6 autobidean, Beaulieu (Cote d'Or), Frantzia sekula izandako autobus istripu larriena gertatu zen. Udaleku batzuetara haurrak eramaten zituen autobusa batek istripua izan eta su hartu zuen. 53 lagun hil ziren eta haietatik 44 umeak ziren.
- ✗ **1990ko ekainak 3:** Autobus britainiar bat irauli zen A 6 autobidean, Joigny (Yonne): 11 hil eta 22 zauritu.
- ✗ **1991ko uztailak 6:** Zazpi lagun hil eta 40 zauritu ziren Rochefort-Montagnan (Puy de Dôme).
- ✗ **1995eko uztailak 10:** Unibertsitariokatalanak garraiatzen zituen autobus batek ezbeharra izan zuen Roque-mauren (Gard), A 9 autobidean zegoela. 32 lagun zauritu ziren.
- ✗ **1997ko abuztuak 13:** *Portugesen hilobia* deitutako autobidean - Bordele eta Baiona artekoa -, Portugalgo dantza talde bat etxera eramaten zuen autobusa atzetik jo zuen bidera ezustean ateratako kamioi bat. Hamar gazte hil eta beste 22 zauritu ziren.

honek zerikusia izan du gurrpilaren lehertzearekin.

**Justizia ikerketa bat abian jarri da berehala** • Dena den, Justizia agintariaren ebazpenaz irekia izan den ikerketak argitu beharko ditu ezbeharren zioak, eta atzo bertan jakin zen Salon-de-Provenceko jandarmez gain bost aditu izendatu zituztela azterketak bideratzeko. Istripua gertatu den lekurat hurbildu zen Marokoko kontsularia ere egoeraz ohartzeko eta biktimen berri hartzeko. Autobus xehatutik atera zituzten gorpuak Coudouxeko gimnasioan eraman zituzten, eta zaurituak, aldiz, inguruko hirietako ospitaletan hartu zituzten. Jakiterat emandako datuen arabera, bi gidatzailez gain, autobusean zihozten 36 gizonak eta bost emakume. Istripuaren ondorioz, eta atzo arratsaldeko 16:00etan oraindik ziraute soroste lanen errazteko, A 7 autobidea itxita zegoen bi norabideetan, eta A 8 autobidean, berriz, Aix-en-Provence-Lyon norabidea baino ez zen erabilgai.

Biktima ugari eragin dituen aste honetako bigarren bide istripua zen atzo goizekoa. Izan ere, astelehen goizean, Bourg-Achard (Normandia) inguruan, A 13 autobidean, gertatutako ehun bat autoren elkar jotzeetan 12 lagun hil ziren eta 66 zauritu. Behe-laino tinko bat eta autodunen arreta eskasa izan ziren, antza, ezbeharren eragileak. Alabaina, istripuaren gertaerak argitzeko xedez, autobidearen hiru kilometroko zati hori itxita egon zen atzo. ✗

### laburrean

#### Alacanten bost dira azkenean hildakoak, bi arrantzale bizirik azaldu baitira

GUARDIA ZIBILAK eta udaltzainek atzo goizean aurkitu zuten Bullento en Pego (Alacant) herrian joan den astearteko uholdean desagertutako Richard Allan Mould britainiarra. 49 urteko Moulden gorpu desagertu zen lekutik hiru kilometrora azaldu zen. Nekazari batek asteazken arratsaldean aurkitu zuen britainiarren dokumentazioa, eta inguru horretan topatu dute gorpu. Haatik, euriteetan desagertutak jo zituzten Santa Polako bi arrantzale beren etxeetan daudela jakin ahal izan zen atzo. Arrantzale horien txalupa itsasoan gelduta aurkitu zuten asteartean, eta horregatik uste izan zen desagertu egin zirela. Hortaz, astearteko uholdeek bost lagun heriotza eragin du, haietatik lau Alacant hirian urak eramanda. ✗

#### PSdeGren bideo polemikoarekin hasi da gauerdian Galiziako hauteskunde autonomikoen kanpaina

HIL honen 19an egingo diren Galiziako hauteskunde autonomikoen kanpaina atzo gauerdian hasi zen. Manuel Fraga Xuntako jarduneko presidentek beste autobia zati bat -17 kilometrokoa orain- irekitzeko aukerarik ez zuen galdu, Rafael Arias Salgado Espainiako Sustapen ministroa ondoan zuela. Xose Manuel Beiras BNG abertzaleko lehendakariak esne ekoizleekin bildu zen eta sozialistek kanpainarako prestatu duten bideoaren berri eman zuten. Bideoa Jesus Perez Varela Kultura kontseilariaren omenez egindakoa dela esan zuen Abel Caballero PSdeG-EU-Os Verdes koalizioko hautagaiak. Azken egunotan, Perez Varelak salatu zuen sozialistek oso bideo gogorra prestatu zutela Fragaren aurka. Kultura kontseilariaren argazki bat erakutsi ondoren, bideoan dordoka bat Fragarekin parekatzen da eta Jose Maria Aznar eta haren emaztea azaltzen dira Moncloan Macarena abestia dantzatzen. ✗

#### Eztabaida sortu da Galizian, epaileak ustezko trafikatzailerik bat askatu ondoren

MANUEL CARBALLO eta Luis Juerguen ustezko droga trafikatzailerik fidantza zuzeneko askatasunean geratu dira, Javier Gomez de Liaño Entzutegi Nazionalerako epailearen aginduz. Carballo dagoeneko aske dago, epaileak ezarritako zazpi milioi pezetako fidantza ordaindu zuelako, baina atzo arratsaldean artean ez zuen diru hori bildu Juerguenek. Carballo eta Juerguen espetxean zeuden *Dobell* itsasontzian Galizian kokaina sartzen saiatu zirelakoan. Juan Miguel Diz Guedes Gobernuak Galizian duen ordezkariak deitoratu egin zuten epailearen erabakia eta gizartean haserre sortuko duela esan zuten. Galiziako drogaren aurkako taldeek kritikatu egin dute Gomez de Liañoren erabakia, eta epaile hori Carlos Buerenek egindako lana zapuzten ari dela gaineratu zuten. ✗

#### Garraio publikoak asteazkenean dohain izatea 16 milioi libera kostatuko da

DOMINIQUE VOYNET Ingurugiro ministroak, Philippe Massoni Parisko Polizia prefetak eta trafiko arduradunak arrakasta handitza jo zuten asteazkenean Parisen lehendabizikotz indarrean jarri zen zirkulazio aldizkatuaren neurria. Egun hartan, matrikularen zenbaki bakoitiak zeuzkaten ibilgailuek baino ez zuten zilegi izan kaleetan ibiltzea, airearen kutsadura gutxitzeko xedez. Hiritarren harat-honatak errazteko gisan, berriz, garraio publikoak dohain izan ziren eguneko zehar. Alabaina, neurri honek kostu bat izan du eta SNCF zein RATP enpresek egindako kalkuluen arabera, 16 milioi libera faltako dira kutxetan. ✗



Parisko Alexandre III zubia asteazkenean.

MICHEL EULER / EFE

#### Pujolek berretsita egin du 51.000 milioi jasoko dituela osasunarentzat

RODRIGO RATO Ekonomia ministroak aurkakoa esan arren, Kataluniak dagoeneko ziurtatuta ditu 1998an 51.000 milioi pezeta osasun sistemaren zuloa estaltzeko, atzo Jordi Pujol Generalitateko presidentek nabarmendu zuenez. Onartu egin zuen Pujolek akordioa oraindik ez dagoela sinatuta eta Zerga eta Finantza Politikarako Kontseiluan izan behar duela izenpetzeak. ✗